



EBAZPENA, 2023ko apirilaren 26koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, honako ebazpen honen hutsak zuzentzeko dena: 2023ko otsailaren 9ko Ebazpena Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendari berarena, EAeko maisu-maistren kidegoko funtzionarioen arteko estatu mailako 2022-2023 lekualdatze-lehiaketan onartutako parte-hartzaileen behin betiko zerrenda argitara ematen duen 2023ko otsailaren 3ko Ebazpena zuzentzen duena.

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2023ko otsailaren 3ko Ebazpenaren bidez, EAeko maisu-maistren kidegoko funtzionarioen estatu-mailako lekualdatze-lehiaketan onartutako parte-hartzaileen behin betiko zerrenda argitaratu zen, non lehiakide bakoitzak zer espezialitatetan parte har dezakeen adierazi zen, Hezkuntzako sailburuaren 2022ko urriaren 7ko Aginduan ezarritakoaren arabera.

2023ko otsailaren 9ko Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenak, EAeko maisu-maistren kidegoko funtzionario irakasleen artean estatu mailako lekualdatze-lehiaketan onartutako eta kanpoan utzitako parte-hartzaileen behin betiko zerrenda argitara ematen duen zuzendari beraren 2023ko otsailaren 3ko ebazpenaren akatsak zuzentzen ditu.

2023ko otsailaren 9ko Ebazpen horretan, besteak beste, lehiakide jakin batzuek lekualdatze-lehiaketa honetan parte hartzeko aukera ematen duten espezialitateei buruzko akatsak zuzendu dira, eta akatsak zuzendu zaizkien parte-hartzaileak eta espezialitateak adierazi dira, zehazki, hirugarren ebazpen-zatian. Parte-hartzaile horien artean Edorta Atela Rubiera ageri da. Zerrenda horretan agertzea transkripzio-akats bat da, eta, beraz, Edorta Atela Rubieraren izena kendu behar da hirugarren ebazpen-zatitik.

Horregatik, eta urriaren 1eko 39/2015 legeak, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkidearenak, 109.2. artikuluan xedatutakoaren arabera, *“Administrazio Publikoek, halaber, izango dute edozein unetan, ofizioz edo interesatuen eskariz, beren egintzetan dauden akats materialak, izatekoak edo aritmetikoak zuzentzeko aukera”*. Horiek horrela, aipatutako legeria eta bat datorren gainontzekoa ikusita,

EBAZTEN DUT

Lehena.- Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2023ko otsailaren 3ko Ebazpenaren hutsak zuzentzen duen 2023ko otsailaren 9ko Ebazpenaren hirugarren ebazpen-zatian atzemandako akats materiala zuzentzea, eta Edorta Atela Rubiera hirugarren ebazpen-zatiko zerrendatik kentzea.

Bigarrena.- Gorako errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, ebazpen hau argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko apirilaren 26a

BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA